BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

4939

AGINDUA, 2014ko urriaren 21ekoa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Fundación Archivo de la casa de Zavala fundazioaren eraketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Ikusi da Fundación Archivo de la casa de Zavala fundazioaren eraketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatzeko espedientea.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2014ko ekainaren 12an sarrera eman zitzaion Herri Administrazio eta Justizia Sailean Euskal Herriko Notarioen Elkargoko notario Guadalupe Maria Inmaculada Adanez Garcia andreak egiletsitako eskritura publikoari. Bertan eskaria egiten zitzaion Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroari Fundación Archivo de la casa de Zavala fundazioaren eraketa inskriba zezan, fundatzailea Luis Maria Zavala Fernandez de Heredia izanik. Eskariari espedienteko agiriak erantsi zitzaizkion.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Aholku Batzordearen batzorde teknikoa 2014ko urriaren 20an bildu zen, fundazioaren helburuak zilegi eta interes orokorrekoak zirela egiaztatzeko xedeaz, eta erregistroan inskribatzearen aldeko txostena eman zuen.

Bigarrena.– Fundación Archivo de la casa de Zavala fundazioaren helburua titulu publikoari atxikitako estatutuetako 3. artikuluan dago ezarrita, eta hauxe da:

1.– Archivo de la casa de Zavalaren zaintzapeko fondoak zaintzea, ikertzea, katalogatzea eta, kasua bada, argitaratzea, baina gerora ere sartzen direnak ere.

2.– Artikulu historikoen fondoak digitalizatzea eta irudi digitala web bidez zabaltzea.

Hirugarrena.– Fundazioaren egoitza, fundazioaren estatutuetako 5. artikuluan adierazitakoaren arabera, helbide honetan egongo da: Easo kalea 3 - 6, Donostia.

Laugarrena.– Fundazioaren hasierako ondare-zuzkiduran bi ondasun mota daude, batetik, dirua; eta, bestetik, dirua ez dena, hau da, Archivo de la casa de Zavalaren artxiboa osatzen duen dokumentazio osoa.

Eskudirutan egindako ekarpena mila bederatziehun eta berrogeita hamazazpi euro eta berrogeita hemezortzi zentimokoa da (1.957,58).

Dirua ez den zuzkidura kontzeptuan egindako ekarpena Archivo de la casa de Zavala osatzen duen dokumentazioa da, hirurehun mila (300.000) euroko balioa duena.

Ekarpen hori benetan egin dela agiri bidez jasota geratu da erregistro-inskripzioko espedientean, hala agintzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 37. artikuluko 1.c) eta 4. paragrafoek.

Bosgarrena.– Patronatuari dagokio fundazioa ordezkatzea, administratzea eta gobernatzea. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren egitekoak, fundazioaren estatutuetako 9. eta 12. artikuluetan xedatzen den moduan.

Seigarrena.– Estatutuetako 10. eta 11. artikuluetan xedatutakoarekin bat, fundazioa eratzeko eskrituran xedatutakoaren arabera, patronatu horretako kideak, hasieran, honako hauek izango dira:

	Patronatuko kidea	Kargua	Iraupena
Patronatukide sortzailea	Luis Maria Zavala Fernandez de Heredia.	Lehendakaria	Biziartekoa
Izendapen askeko patronatukidea	Cirilo Martin Retortillo	Lehendakariordea	Mugagabea
Izendapen askeko patronatukidea	Jose Antonio Goiria Zabala	Idazkaria	Mugagabea
Izendapen askeko patronatukidea	Iñigo Zavala Arnott	Diruzaina:	Mugagabea

Guztiek onartu dituzte beren karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluan ezarritako moduetariko baten bidez.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari dagokio fundazioaren estatutuak aldatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala ezarrita dago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikuluan; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan; Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuan; eta Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzekoan.

Bigarrena.– Hartarako legitimazioa daukan pertsona batek sustatu du espedientea. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datuak eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki bete da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36., 37., 38. eta 39. artikuluetan ezarritakoa. Aplikatzekoak diren legeetan eta erregelamenduetan ezarritakoarekin bat etorrita eratu da fundazioa.

Arauak eta, oro har, kasu honetan aplika daitezkeen gainerakoak ikusi dira. Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko agintzea, honako datu hauekin: egungo data eta F-372 erregistro-zenbakia, Donostiako (Gipuzkoa) Fundación Archivo de la casa de Zavala fundazioaren eraketarako; baita patronatuaren hasierako osaera ere. Patronatu horretako kideak zazpigarren aurrekarian agertzen dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Notarioen Elkargoko notario Guadalupe Maria Inmaculada Adanez Garciak 2014ko apirilaren 14an egiletsitako eskritura publikoan xedatu bezala.

Bigarrena.– Fundazio hori, dituen helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 4. sekzioan sailkatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2.2 artikuluan xedatutakoarekin bat.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 21a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.